


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Ekainean, zertxobait igo da Lanbiden erregistratutako langabeen kopurua, eta **6.603 langabe zenbatu dira (2.936 gizon eta 3.667 emakume)**:

- Langabezia **% 1,2 igo da maiatzaren aldean.**
- Langabezia **% 3,6 igo da aurreko urteko ekainaren aldean.**

Ekainean, bai gizon langabeen kopurua, bai emakume langabeen kopurua pixka bat hazi da (% 0,4 eta % 1,8, hurrenez hurren).

Martxoan eta apirilean gertatzen zen bezala, Donostian langabeen kopuruak gora egin du aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

2023ko ekainarekin alderatuta, langabeen kopurua % 3,6 igo da. Gizon eta emakume langabeek gora egin duten arren, langabeziaren hazkunde hori gizonezkoen taldean kontzentratzen da batez ere (+ % 5,2 gizonetan eta + % 2,3 emakumeetan).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,4	7,9	9,7
Gizonen langabezia indizea	6,8	6,6	8,2
Emakumeen langabezia indizea	7,9	9,1	11,2
Genero arrakala	1,07	2,52	3,03

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea 7,4koa da: 6,8 gizonetan, 7,9 emakumeetan. Bestalde genero-arrakala 1,07 puntu portzentualekoa da.

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	7,9	-1,8
Donostia	7,4	-2,3
Bizkaia	10,6	0,9
Bilbo	12,3	2,6
Araba	10,5	0,8
Gasteiz	10,8	1,1

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, **Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburuak.**

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.603	%100	%1,2
Gizonezkoak	2.936	%44	%0,4
Emakumezkoak	3.667	%56	%2,3
Gipuzkoa	28206	%0,3	%2,2
EAE	106.367	-%0,1	%0,9

Langabezia tasa EUSTATen arabera (2024 2. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,4 ekainean), EUSTATek hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren araberrako estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2023ko azken hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena izan duten lurralde historikoak eta hiriburuak.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko bigarren hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,9	5,2	5,6
Donostia	7,1	5,6	6,4
Bizkaia	7,8	9,5	8,6
Bilbo	7,9	11,0	9,4
Araba	8,5	6,7	7,7
Gasteiz	9,9	5,7	8,0
EAE	7,3	7,6	7,5

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa.



JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2024ko bigarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,9	53,9	57,3
Donostia	62,2	54,6	58,2
Bizkaia	60,7	51,3	55,8
Bilbo	62,8	50,4	56,2
Araba	63,6	52,6	57,9
Gasteiz	64,1	51,5	57,5
EAE	61,2	52,3	56,6

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2024ko bigarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,3	51,1	54,1
Donostia	57,8	51,5	54,5
Bizkaia	56,0	56,4	51,0
Bilbo	57,8	44,9	50,9
Araba	58,2	49,1	53,5
Gasteiz	57,7	48,6	53,0
EAE	56,8	48,3	52,4

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, otsailean:

- 55 urtetik gorako 2.328 langabe erregistratu dira Lanbiden (-22, maiatzaren alderatuta).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.568 langabe erregistratu dira Lanbiden (+43, maiatzaren alderatuta).
- 35-44 urte bitarteko 1.209 langabe erregistratu dira Lanbiden (+25, maiatzaren alderatuta).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.069 langabetu erregistratu dira Lanbiden (+19, maiatzaren alderatuta).
- 25 urtetik beherako 429 langabe erregistratu dira Lanbiden (+14 maiatzaren alderatuta).

Langabeen kopuruak pixka bat gora egin du adin-tarte guztietan, 55 urtetik gorakoenean izan ezik.

Egia bada ere 55 urtetik gorakoak direla langabezian pisu handiena duten kolektiboak, horiek ere garrantzi handiagoa dute biztanleria-mailan.

Maiatzarekin alderatuta, bai gizon langabeen kopuruak, bai emakume langabetuenak, gora egin dute (langabeziaren hazkunde osoa +%1,2)

Gipuzkoan langabeen kopurua +%0,3 igo da. Bestalde, EAEan langabeen kopurua pixka bat jaitsi da (% 0,1).

2023ko ekainarekin alderatuta, gizon eta emakume langabeen kopuruak gora egin duen arren, igoera hori gizonen kolektiboan kontzentratzen da batez ere (emakume langabeen kopurua + % 2,3 hazi da eta gizonena + % 5,2).

Era berean, nabarmentzekoa da Donostian langabeen urte arteko hazkundea EAEkoa (+ % 0,9) eta Gipuzkoakoa (+ %2,2) baino handiagoa izan dela (+ % 3,6).

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	%59,0	%41,0	-17,9
25 eta 34 urte bitartekoak	%47,9	%52,1	4,2
35 eta 44 urte bitartekoak	%39,8	%60,2	20,4
45 eta 54 urte bitartekoak	%44,8	%55,2	10,3
55 urtetik gorakoak	%42,4	%57,6	15,2

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.


Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, datuek pentsarazten digute oraindik ere oztopoak eta aurreiritziak daudela, emakumeek enplegua lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia-erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alabak edo beste senitarteko batzuk zaintzean.

Testuinguru horretan, datuek pentsarazten digute 35 urtetik gorako emakumeen artean langabeziaren kronifikazioa dagoela.

Kronifikazio horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 15 ehuneko-puntutik gorakoa baita.

Langabeen hezkuntza maila




Langabeen % 45,3ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 18,1k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Bestalde, goi-mailako ikasketak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) dituzten emakume langabeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, eta esan dezakegu **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonen baino kualifikazio handiagoa dutela**. Aurrerago aztertuko dugun bezala, horrek pentsarazten digu genero-desberdintasunak daudela, emakumeen kolektiboarentzat kaltegarriak, lan-merkaturako sarbidean eta kalitatezko enpleguetan.

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%59,0	%55,1	%55,4
35 urtetik beherakoak	%22,7	%24,8	%24,3
Iraupen luzeko langabezia	%45,9	%46,5	%50,5
Atzerritarrak	%14,6	%19,8	%18,7
EB-ko atzerritarrak / Atzerritarrak	%17,8	%16,9	%15,7
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%18,1	%11,6	%11,4
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%45,3	%54,0	%56,1




Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:

- *Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabetu gehiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak gazteen langabezia txikiagoa du.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar langabeen guztizkoari dagokionez (%17,8), handiagoa da Gipuzkoan (% 16,9) eta EAEn (% 15,7) erregistratutakoa baino.*

(20 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren garrantzi demografiko bera biztanleria osoarekiko 3 lurraldeetan: % 58.)

Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailiek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Ekainean zehar **emakumezkoen kontratazioak gizonetakoena gainditu du. Hala eta guztiz ere, emakume langabeen hazkundea handiagoa izan da gizon langabeena baino.**

Datuek pentsarazten digute genero-oztopoak eta -aurreiritziak daudela oraindik, eta horrek eragina duela kontratazio-motan. **Martxoan, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia lanaldi partzialeko kontratuak dira, eta gizonen sinatutako kontratuen % 31 baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, ekainean, **kontratatutako pertsona guztien % 11 emakume atzerritarrak ziren** (atzerritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,2 dira).

Ekainean 8.353 kontratu sinatu dira, hau da, maitzean baino % 1,3 gehiago (maitzean baino 102 kontratu gehiago, 2023ko ekainean baino 1.308 kontratu gutxiago).

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.645	%43,6	4.708	%56,4	8.353
Aldi baterakoak	2.666	%43,3	3.490	%56,7	6.156
Mugagabeak	979	%44,6	1.218	%55,4	2.197
Lanaldi partziala	1.144	%32,3	2.394	%67,7	3.538
Lanaldi osoa	2.501	%51,9	2.314	%48,1	4.815

Kontratu horiekin 6.187 pertsona kontratatu dira, hau da, maitzean baino % 7,1 gehiago (444 pertsona gehiago kontratatu dira).

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,35 kontratu sinatu ditu.


Nabarmendu behar da, proportzioan, kontratatutako pertsonen kopurua gehiago hazi dela sinatutako kontratuen kopurua baino. Kontratazio mugagabeak % 10 egin du gora maitzaren aldean, eta bilakaera hori ulertzen laguntzen digu.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.696	%43,6	3.491	%56,4	6.187
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4		1,3		1,4
24 urtetik beherakoak	988	%46,9	1.119	%53,1	2.107
25 eta 34 urte bitartekoak	687	%44,8	846	%55,2	1.533
35 eta 44 urte bitartekoak	442	%41,5	624	%58,5	1.066
45 eta 54 urte bitartekoak	367	%37,8	603	%62,2	970
54 urtetik gorakoak	212	%41,5	299	%58,5	511
Atzerritarrak	503	%42,7	676	%57,3	1.179

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan gizonak baino emakume gehiago kontratatu dira. Batez ere 45 urtetik gorakoan adin-tartean.
- Kontratazio mugagabearen garrantzia gutxi gorabehera Zehuneko-puntu igo da (kontratu guztien % 26).
- Partzialtasuna zertxobait hazi da, baina aurreko hilabeteetako mailen antzekoa da; Ekainean sinatutako kontratuen % 42,4 lanaldi partzialekoak baitira. Kontratu mota hau emakumeek sinatzen dituzte batez ere (kontratu horien % 68).
- Kontratuen % 59 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
- Kontratuen % 24 45 urtetik gorako pertsonen sinatzen dituzte. Horien guztien % 61 emakumeak dira.
- Ekainean kontratatutako pertsonen % 19 atzerritarrak ziren. Gainera, kontratatutako atzerritar jatorriko pertsonen % 57 emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua hazi egin da eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 20,3** sinatu ditu (% 19,3 maiatzean).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 36,1** sinatzen ditu (maiatzean % 34,8).
- Sektore horretan sinatu dira kontratu mugagabe gehien, **794 kontratu mugagabe** (694 kontratu maiatzean).
- Kontratazio mugagabeak berriro ere gora egin du pixka bat sektorean. **Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 47 mugagabeak dira** (% 44 maiatzean).
- Kontratazioaren **partzialtasunak ehuneko 2 puntu egin du behera maiatzarekin** alderatuta. **Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 52 lanaldi partzialekoak dira** (% 54 maiatzean).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 12,4 sinatu ditu** (% 10,3 maiatzean).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 12,2** (maiatzean % 14,3) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 18,9** (maiatzean % 14,6) sinatu ditu.
- Ekainean zehar **merkataritzan sinatutako kontratuen % 26 mugagabeak dira** (% 33 maiatzean).
- Lanaldi partzialeko kontratazioak % 5 egin du gora aurreko hilaren aldean.**
- Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 65 lanaldi partzialekoak dira** (% 60 maiatzean).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	11 (%0,5)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	53 (%2,4)	%75,5	%24,5
Industria	69 (%3,1)	%44,9	%55,1
ostalaritza	794 (%36,1)	%53,3	%46,7
Merkataritza	268 (%12,2)	%30,6	%69,4
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	71 (%3,2)	%32,4	%67,6
Osasuna eta gizarte zerb.	154 (%7,0)	%32,5	%67,5
SEIC - ENPRESAK			
297 (%13,5)	%53,2	%46,8	
Zerbitzu operatiboak	480 (%21,8)	%33,5	%66,5

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	2 (%0,1)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	10 (%0,3)	%50,0	%50,0
Industria	32 (%0,9)	%75,0	%25,0
ostalaritza	886 (%25,0)	%44,4	%55,6
Merkataritza	667 (%18,9)	%22,6	%77,4
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	229 (%6,5)	%25,3	%74,7
Osasuna eta gizarte zerb.	636 (%18,0)	%13,8	%86,2
SEIC - ENPRESAK			
350 (%9,9)	%53,4	%46,6	
Zerbitzu operatiboak	726 (%20,5)	%32,5	%67,5

behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen duela hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,6 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Hezkuntza eta osasun – gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 85 eta % 89 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntzan eta osasun sektorean. Azken horretan, lanaldi partzialeko kontratuen % 86 emakumeei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua da).

Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak eskaintako kontratazioan (% 7), industrian (% 31) eta eraikuntzan (% 16). Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 75 eta osasun-sektoreko kontratuen % 76 emakumeen kolektiboarentzat dira.


¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduera intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (491 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (33 kontr.), higiezin-jarduerak (16 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (958 kontr.), administrazioa publikoa (52 kontr.), beste zerbitzu batzuk (121 kontr.) eta etxeetako jarduerak (161 kontr.).

DSBEaren hartzaileak

Ekainean **3.668 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (maiatzean baino 19 hartzaile gutxiago)

Donostiako DSBEaren hartzaileei buruzko datuak baditugu ere, ez dugu auzoen arabera banakapenik. Horregatik, orri honen bigarren zatian, aurreko hileko auzoen arabera banakapena erakutsiko da.



Nabarmendu daiteke:

- Maiatzean DSBEa jaso zuten pertsonen **% 60 emakumeak dira**.
- **55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 47 ziren** ekainean.
- DSBEa jasotzen dutenen % 22,8k lanaren osagarri gisa jaso zuten maiatzean.
- Maiatzean Donostian DSBE jasotzen zutenen % 28,2k goi-mailako ikasketak zituen (LH edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EARekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera (Maiatza)



	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,3	%0,7	%0,4
20 - 24 urte	%2,5	%2,5	%2,7
25 - 29 urte	%4,7	%5,4	%5,3
30 - 34 urte	%7,5	%8,0	%7,9
35 - 39 urte	%8,4	%9,9	%9,7
40 - 44 urte	%9,5	%11,3	%11,2
45 - 49 urte	%10,0	%11,7	%10,9
50 - 54 urte	%10,3	%11,2	%10,6
55 urtetik gora	%46,9	%39,3	%41,4
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,8	%61,7	%59,3
Batzilergoa	%9,4	%6,9	%7,2
Lanbide Heziketa	%21,3	%17,6	%19,8
Unibertsitatea	%6,9	%4,4	%4,5
Informaziorik gabe	%8,6	%9,4	%9,1
Lanaren osagarritasuna	%22,8	%20,9	%21,9
Oinarritzko DSBE modalitatea	%77,2	%79,1	%78,1
Gizonak	%42,5	%42,5	%42,5
Emakumeak	%59,3	%57,5	%57,5

(Maiatzeko datuak)

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzekide guztiekiko %
Aiete	14.066	148	%1,1
Altza	19.517	604	%3,1
Amara Berri	29.377	440	%1,5
Antiguo	13.754	144	%1,0
Añorga	2.448	29	%1,2
Ategorrieta-Ulia	3.874	78	%2,0
Centro	21.352	362	%1,7
Egia	14.208	335	%2,4
Gros	17.563	271	%1,5
Ibaeta	9.721	128	%1,3
Igeldo	1.040	7	%0,7
Intxaurrondo	15.010	558	%3,7
Loiola	6.073	183	%3,0
Martutene	2.592	85	%3,3
Miracruz-Bidebieta	8.565	287	%3,4
Miramón-Zorroaga	2.302	24	%1,0
Zubieta	292	1	%0,3